


ezagutzen al duzu Donostia?

Lurmanda


Tximistarri parajea oso ezaguna da baina nork ezagutzen ditu bere ondoan dagoen *Lurmandako* harlasta deituriko amildegi beldurgarriak? Agian oso donostiar gutxik. *Lurmanda*, *Lurmenda*, *Lurmanta*, *Gurmenda*, *Durmanda* edo *Plateta* izenekin ezaguturiko harlasta, Igeldo herriko *Amezti* auzunetik hurbil, *Tximistarri* eta *Urilletako* harkaitzetatik mendebaldera dago. Duela urte batzuk agian asko- adiskideak lanpernetara joaten ginen *Lurmandara*. Igande goizetan Antiguatik oinez irten, *Arbizketa* eta *Marbill* base- rrien ondotik, *Muitzara* igo, eta Aiztoki iturriaren albotik jarraituz, oso maiz joaten ginen itsasoa bare zenean eta marea behe- retan. Arroka erraldoi haietatik zintzilik, olatu batek irentsiko ote gintuen beldur, urduritasuna, harkaitzari lapa bat bezala helduta menperatzen genuen. Batzuetan, gure arrantza osatzen genuenean Igeldo herriko ostatu batera joaten ginen. Han lanpernak egosten zizkiguten eta lagun artean jan ondoren, berriz ere Antigua aldera abiatzen ginen joan ginen bezalaxe: oinez. Beste batzuetan ere joaten ginen itsas bazter eder hauetara: batez ere, ekaitza edo enbata zenean. Lurmandako begiralekuan jarritz gero, arroka hauek ekaitzak astintzen dituen- an, benetako zirrara senti- tzen da barnean.



Lurmanda, Igeldo herriko kostaldean.



Lurmandako harlastan, olatuak lehertzen.



Lurmandako begiralekua.

La Casa del Café

Juan Iriondo S.A. - DONOSTIA

ARGAZKIAK ETA TESTUA: JOSU TELLABIDE